

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

86/2021 Foru Agindua, apirilaren 21ekoa, hasierako onespena ematen diona Gesaltza Añanako 1 poligonoko 673 lurzatian, Añanako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, estazio meteorologikoa instalatzeko Euskal Haizie SLk sustatutako proiektuaren interes publikoaren adierazpeneko espedienteari

Euskal Haizie SLk Añanako Udalari obra lizentzia eskatu dio Gesaltza Añanako dermioan, katastroko 49-1-673 erreferentzia duen lurzatian, estazio meteorologikoa ezartzeko proiekturako.

Añanako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen osagai da proiektu teknikoa, baita udaleko arkitektoak egindako txostena ere. Azken horretan jasotzen denez, dorrea egin asmo den lurzattia lurzoru urbanizaezin bezala sailkatutako eta "4 zona. Baso zona, leheneratu beharrekoa eta substratu ahula duena" kalifikatutako lurretan dago eta, udalerrian indarrean dauden plangintzako arau subsidiarioetan ezarritakoaren arabera, baimendutako erabilera bezala onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioak eta azpiegiturak jasotzen dira, bertan kokatu behar badira arrazoi zientifiko, topografiko, geografiko edo antzekoengatik.

Proiektua haizea neurtzeko estazio batean datza, abiaduren banaketa eta kokalekuaren beste ingurumen datu batzuk ezagutzeko helburuaz. Dorrea hauek osatuko dute: haizearen abiadura hainbat garaieratan neurtzeko lau anemometro, haizearen noranzkoa neurtzeko bi haize-orratz, presio atmosferikoaren sentsore bat eta tenperatura eta hezetasunaren sentsore bat. Sentsore horiek 99,3 metroko garaierako sareta-egitura batean kokatuko dira, hiru noranzkotan txarrantxatuta garaiera desberdinetan altzairu galvanizatuzko zirgen bidez. Dorrrearen beheko aldean armairu bat kokatuko da, barruan datuak eskuratzeko sistema (logger-a) daukana, eta GSM/GPRS komunikazio modulu bat ere edukiko du. Tresneria guztia eguzki energiaren elikatzen da panel fotovoltaiko baten bidez. Horregatik, ez da instalatu behar inolako linea elektrikorik. Halaber, lehendik dauden bideak erabiliko dira dorrera heltzeko, eta instalazioa hormigoirik gabe egingo da, lurpean sartutako xafla sistema batekin. Horrek azpiegitura erraz desmuntatzeko modua emango du.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientearen ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jardura eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiegunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren"

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onspena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onspenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea Euskal Haizie SLk sustatutako proiektuaren interes publikoaren adierazpeneko espedienteari. Proiektua Gesaltza Añanako 1 poligonoko 673 lurzatian, Añanako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, 99,3 metroko dorre bat muntatuta haize neurketak egiteko helburuaz estazio meteorologikoa instalatzeko da.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeiegunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Foru agindu honek izapide egintza ez kualifikatuaren izaera du, eta beronen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 21a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO